

bidegileak



Matilde Zabalbeaskoa (1910-1975)

Egilea:

NEREA AZURMENDI

Orfeoiko lehen emakumeak

*P*ertsona xumeen ahotsen oihartzuna —ahotsik ederrenak izanda ere— erraz zokoratzen du denborak ahanzturaren bazter ilunetan. Denboraren poderioz, horixe gertatu zaie Josebe, Matilde eta Mirentxu Zabalbeaskoa Iregi ahizpa donostiarren ahots miresgarriei.

XX. mendeko aurreneko hamarkadetan Donostian sortutako Zabalbeaskoa ahizpei, bizirik zirela, denek aitortu zizkieten kanturako dohain apartak. Lan-du zuten jasotako dohaina, eta hil artean eutsi zioten musikarako grinari. Hiru ahizpa, hiru bide. Gutxitan gurutatu ziren oholtza berean Josebek,

Matildek eta Mirentxuk hartutako bideak, baina halakoetan laudorioak baino ez zituzten jaso.

Egun, ordea, adiskideren batzuen oroitzapenetan, senitartekoek gordetzen dituzten argazki urrietan, aspaldiko egunkari eta aldizka-



Matilde Zabalbeaskoa (1910-1975)

ri zatietan eta han-hemenka sakabanatutako izpietan baino ezin dira entzun —urruti, aha-peka arituko balira bezala— Donostiako Orfeoiko zuzendari Secundino Esnaola bera txunditu zuten ahotsak.

Euskal kantu koralararen historian aparteko tartea duten Eusko Abesbatza edo Eresoinkako kide eta lekuko izandako Matilde gidari dugula korrituko dugu, hamarkadetan berrera, hiru ahots miresgarri haien ibilbide gezamina. Baita une jakin batean bihotza eta ahotsa herriaren zerbitzuan jarri zituzten gizon-emakume askorena ere.

Donostiako Orfeoa, aurreneko eskola

Pasai Donibanen jaioa izan arren sustraiak Bizkaian zituen Juan Zabalbeaskoa Artazak eta Eskoriatzako Juana Iregi Lazkanok bost seme-alabako familia osatu zuten Donostian. Seme bat ume-umetan hil, eta lau baino ezin izan zituzten aurrera atera. Josefa María Zabalbeaskoa e Iregui inskribatu zuten aurrena Erregistro Zibilean, jaio zen egun berean, 1907ko urtarrilaren 14an; Josebe, alegia. Josebek hiru urte bete eta gutxira munduratu zen Matilde, familiak Donostiako Moraza ka-



Gurasoak, Juana Iregi Lazkano eta Juan Zabalbeaskoa Artaza

lean zuen etxean, 1910eko martxoaren 14an, Santa Matilde egunean. Eguneko santuaren izena ez ezik, aitaren aldeko amona Guadalupe Artazarena eta Paula izenak ere jarri zizkioten jaioberriari. 1912 urteaz geroztik, urtarrilaren 14an eta martxoaren 14an ez ezik, otsailaren 14an ere ospatuko zen urtebetetzerik Zabalbeaskoa familiaren etxean, egun horretantxe (1912ko otsailaren 14an), jaio baitzen heldutasunera iritsiko zen mutiko bakarra, Iñaki Joseba, izen horiekin-txe inskribatua. Handik lau urtera, San Sebastian egunez, laugarren alabak osatu zuen familia: 1916ko urtarrilaren 20an jaio zen Miren Josune Sebastenek, Mirentxuk.

Mirentxu neska koskorra zenekoa da aurkitu dugun familiaren argazki bakarra Amaren ondoan, haren antz handikoak ziren Josebe eta Mirentxu; atzealdean Iñaki mutil bikaina; aitaren aldamenean, berriz, hura bezala gor-puzkera sendokoa zen Matilde, txirikorda lu-zeak lepotik behera zintzilik dituela.

Zabalbeaskoa familia ez zen familia aberatsa, baina urritasun handirik gabe bizi zirela ere esan liteke. Enplegatu eta dendari modura agertzen da aita seme-alaben jaiotza-agirietan, baina Juan Zabalbeaskoa Artazak amaren aldeko familiak 1917an Pasaiko portuan sor-tu zuen enpresan ere egin zuen lan hainbat



Zabalbeaskoa-Iregi familia. Ezkerrean Josebe, gurasoen erdian Iñaki anaia eta Mirentxu, eta aitaren eskuinean, Matilde

urtez. Behar bezala prestatzeko baliabideak ez ezik, berezkoak zituzten dohainak pizteko eta lantzeko ezinbestekoa zen musikarako grina ere etxean aurkitu zuten neska-mutikoez eta, batera edo bestera, hiru ahizpak oso gazterik murgildu ziren musikan eta kantuan. Euskal Herriarekiko maitasuna ere sehaskan bertan jaso zuten.

Musikaren alorrean, Josebe ahizpa zaharrena ireki zuen bidea, gazte-gaztetan bilakatu baitzen Donostiako Orfeoiko kide. Josebe jaio zenerako, 1897an sortutako Donostiako Orfeoiak izen handia zuen, besteak beste 1902an Orfeoiaren zuzendaritza hartu zuen Secundino Esnaolaren bultzadari esker. 1909an, garai hartan ika-mika biziak sorrarazi zituen erabakia hartu zuen Orfeoiak, Esnaola maisuaren eraginez, eta ordura arte gizonetzkoak baino ez zituen taldea abesbatza misto bilakatu zen. Haurtzarotik irten berria zen Josebe kantari gaztearen dohainak ez zitzaizkion oharkabean joan Esnaolari, eta bere zuzeneko gidaritzapean hartu zuen.

Hamazazpi urte zituenerako, ezaguna zen jada Josebe, eta hasia zen garaiko abeslari handien arreta erakartzen. 1925ean, Josebek hemezortzi urte zituela, zera zioen haren ahotsari buruz Zabalbeaskoa ahizpen bizitzan —Matilderenean batik bat— gerora eragin handia izango zuen Gabriel Olaizola abeslari ezagunak: «Nire karreran zehar, ahots pribilegiatu askorekin egin dut topo, baina orain arte horrelakorik entzun gabe nengoen».



Mirentxu, Matilderen ahizpa gazteena, eta Josebe, ahizpa zaharrena. Matilde bera bezala, abeslari apartak biak

Matilde, artean, hamabost urteko gaztetxoa zen, eta hamar bete gabeko umea Mirentxu. Matildek eta Mirentxuk ere izan omen zuten Orfeoiko harremanik, nahiz eta, Joseberen kasuan ez bezala, ez den horien arrastorik gelditu Donostiako abesbatza enblematikoaren agiritegian. Nolanahi ere, ari zen nonbait Matilde ere nabarmentzen, zeren eta, handik urte gutxira, Gabriel Olaizolak oso kontuan izan zuen Eusko Abesbatza (eta, aurrerago, Eresoinka) sortzeko orduan.



Matilde, Eresoinkan erabili ohi zituzten jantzi dotoreak soinean dituela

Giuseppina Zabalbesco

Musikak ez ezik abertzaletasunak ere bazuen tokirik Zabalbeaskoa-lregi sendian, eta izaera hori ez zen soilik gauzatu seme-alabei jarritako euskarazko izenetan... Gorabehera politikoez izan zuten, hortaz, eraginik Zabalbeaskoa ahizpen ibilbide pertsonal eta profesionalen.

Miguel Primo de Rivera jeneralak, 1923an, erresistentzia handirik aurkitu gabe ezarri zuen zazpi urteko diktadurak seko eten zuen aurreko urteetan abertzaletasuna bizitzen ari zen loraldi politiko eta kulturala. Eten, ez ito... 1928an, esaterako, arrakasta handiz eskaini zituen aurreneko emanaldiak Donostian sortutako Saski-Naski taldeak, Josebe Zabalbeaskoa, Orfeoiko abeslari ugarirekin batera, tartean zela.

Primo de Riverak 1930eko urtarrilean dimisioa eman zuenetik 1931ko apirilaren II. Errepublikaldarrikatu zenerako, pil-pilean zegoen abertzaletasuna, politikaren eta kulturaren alor gehientsuenetan, noiz birloratuko zain. Garai hartan, Donostiako Boulevardean bizitzen, EGIren egoitzaren ondoan, Italiako antzoki handienetan arrakasta itzelak bildutako Gabriel Olaizola baxua, musikaren alorrean tradizio handiko familiako kidea, abeslari eta musikari aparta (Milango Scalako abeslari izatera heldu zen) eta abertzale porrokatua.

Katalunian 1919an sortutako *Unió de Societats Corals i Orfeons de Clavé* kutsu abertzaleko abesbatza-federazioa eredu hartuta, Euskal Herrian ere piztu zen halako zerbait sortzeko asmoa, eta horren emaitza hiriburu guztietan sortu ziren Eusko Abesbatzak izan ziren. Donostiakoaren arima eta bultzatzailea, alegia, Gabriel Olaizola izan zen. Izan zen, noski, politika kontuetan epelagoa zen Donostiako Orfeoiaren eta Eusko Abesbatzaren arteko norgehiagoka halako bat, baina biek ala biek jo zuten maila gorena, Eusko Abesbatzaren kasuan arrakasta 1936ko gerak eten bazuen ere.



Saski-Naskiren aurreneko agerraldietan hartu zuen parte Josebek

Gabriel Olaizolaren eskutik 1931 urtean Donostiako Eusko Abesbatza sortu zenerako, etorkizun handiko abeslaria zen 22 urteko Josebe Zabalbeaskoa. 1929 urteko udazkenean, omenaldia eskaini zion Donostiako Orfeoiak, Secundino Esnaola zuzendaria hil ondorengo aurreneko agerpen publikoetako batean, Gipuzkoako hiriburuko Bellas Artes antzokian. Besteak beste, Gabriel Olaizola bera, Antton Kortajarena eta Matilde ahizpa izan ziren bakarlari kontzertu hura osatu zuten sei piezetan. Kontzertua omenaldi gisara aurkeztua izan bazen ere, Joseberentzako dirua biltzeko ekitaldia izan zen, berez, Italiarako bidaiaria prestatzen ari baitzen ordurako Zabalbeaskoa ahizpa zaharrena.

Izan ere, uda hartan bertan Mardones baxu arabar ospetsuak Josebe entzuteko aukera izan zuen eta, neska gaztea zeharo etxekoia eta apala bazen ere, haren laudorio guztiek gomendatzen zioten abenturari ekitera animatu zuten. Milan aldera abiatu zen Josebe, amarekin batera, 1929ko negua hastear zela. Milanen estimu handitan izan zuten orduko maisu ezagunenek Joseberen kontralto aho-tsa. Punta-puntako soprano onenak zituen Italiak, baina urri zen kontraltotan. Une hartantxe, gainera, karreraren azkenak ematen ari zen garaiko kontralto italiar ezagunena, eta harexen senar zen Ricardo Pettinella kantu-maisuak hartu zuen bere gidaritzapean Josebe, emaztearen oinordeko bilakatzeko asmoz-edo.



Gabriel Olaizolak harreman estua izan zuen Zabalbeaskoa ahizpekin, Matilderekin batik bat

Berehala egin zuen debut profesionala Josebek, bolada baterako Giuseppina Zabalbesco bilakatuta. Maltako Royal Opera House, Torinoko Victor Manuel antzokia, Como, Ferrari, Brescia, Florentzia, Lisboa, Milan... «Rigoleto», «Walkiria», «Boris Godounov», «Aida», «Un ballo in Maschera», «Die Walküre», «Il Trovatore»... Garaiko antzoki nagusiengan aritu zen —Aretxabaletan jaiotako Cristobal Altuberekin batera, maiz—, eta operaren historiako obra nagusiak interpretatu zituen, hainbat urtez, arrakasta eta kritika onak lagun zituela.

Euskal Herritik, ordea, ez zen erabat alden-du, ezta Matilde ahizparengandik ere. Josebe Italia aldean zebilela, osatuta eta abian zuen Eusko Abesbatza Gabriel Olaizolak. Matilde bakarlari zela, arrakasta handiz aurkeztu zuen 1933ko maiatzean Bilboko Arriaga antzokian Toribio Altzagaren hitzak eta Buena-ventura Zapirainen musika uztartu zituen *Txanton Piperrri*. Donostian 1899an estreinatutako opera hura, aurreneko euskal operatzat jo izan den lana, ez zen ordea izango Eusko Abesbatzaren eta Matilderen aurreneko arrakasta, ezta handiena ere.



Josebe taularatzeko prest

Amaya bata, Amagoya bestea

1933 urtean, Milanen zela, Josebe Zabalbeaskoa eta Cristobal Altube Bartzelonako *Liceu* antzokian abesteko kontratatu zituzten. Antzokia kudeatzen zuen enpresan izandako hainbat arazo tarteko, Joseberen ordura arteko lorpen handiena izatekoa zena bertan behera geratu zen, baina arrakastatsu aritu zen bikotea, hala eta guztiz ere, Bartzelonako beste antzoki batzuetan. Urte bereko udaldian, Donostiako Kursalek antolatutako opera denboraldian hartu zuen parte Josebek, Altuberekin eta bertako zein kanpoko

beste abeslari ugarirekin batera, erreperatorio zabala jorratuz. Horrez gain, Zabalbeaskoak zein Altubek aurkitu zuten Eusko Abesbatzaren erronka handiengan parte hartzeko modurik.

Gabriel Olaizola, alegia, Jesus Guridiren *Amaya* operaren antzezpena ari zen prestatzen. Guridik (Gasteiz, 1886-Madril, 1961) 1910 eta 1920 urteen artean konposatutako *Amaya*, (Navarro Villosladaren izen bereko eleberrian oinarritua eta 1920ko maiatzaren 22an estreinakoz Bilbon emana) abertzaletasunaren opera handizat izan da hartua. Aurreneko euskal opera taularatu ondoren, beraz,



Pepita Enbil, Plácido Domingoren ama

Eusko Abesbatzaren arrakasta nagusia *Amaya* operaren taularatzea izan zen. Matilde izan zen Amaia, eta Josebe haren izeba Amagoya

Amayari ekitea urrats logikoa zen Eusko Abesbatzaren ibilbidean.

Guridiren opera taularatzea eta rol nagusi zailak egingo zituzten kantariak aurkitzea ez zen lan erraza, eta normalean Eusko Abesbatzarekin aritzen ez ziren abeslariak ere bildu zituen proiektura Gabriel Olaizolak. Teodosiorekin (Todosi, Arrojita-Jauregiren libretoaren euskarazko bertsoan) maiteminduta dagoen VIII. mendeko printzesa euskaldunarena egitea ordurako soprano dramatiko ahotsa erabat garatuta zeukan 23 urteko Matilde gazteari egokitu zitzaion. Joseberekin batera Donostiako opera denboraldiko abeslari-zerrendako kide zen Cristobal Altube kontratatu zuten Teodosiori ahotsa jartzeko, eta Josebek berak hartu zuen bere gain Amagoya Amayaren izebaren rola. «Goñitar jauna» —Migel, Teodosioren aita— Gabriel Olaizola bera izan zen, eta Teodosioren ama, berriz, aurrerantzean ere Matilderekin hurbileko lotura izango zuen Pepita Enbil getariarra, gerora Plácido Domingo tenorearen ama izango zena. Halakoxe begi-keinuak egiten dituen patuak, eta Plazida zuen izena Teodosioren amak... Amagoyaren seme eta Amayaren senargai Asier, berriz, Antton Kortajarena izan zen. Pertsonaia nagusi horien inguruan beste 250 artista ere bazebiltzala nabarmendu zuten, muntaiaren handitasuna azpimarratuz, garaiko egunkarietako iragarkiek.

Aurreneko ekitaldiko lehenengo eszenan arrastiriari so Amaya-Matilde eta Amagoya-Josebe

erakusten zituen opera, Guridi bera orkestrazuzendari zela, sekulako arrakastaz aurkeztu zen Donostian, Bilbon eta Bartzelonan. Txorata omen zeukan jendea ikuskizunak, eta Donostiatik kanpo lortutako txaloek ere pozarren eta harro hartu zituzten donostiarrek. Eusko Abesbatza Bartzelonan eskainitako emanaldietatik bueltan trenez zetorrela, ehunka lagun joan omen zitzaizkien bila tren-geltokira, txapelketa handiren bat irabazi duen taldeari eman ohi zaion ongietorri beroa egitera.

Handik urte batzuetara, bizirik zirauen Matilderen arrakastaren oroitzapenak. Honako bertso hau eskaini zion 1937ko epailaren 27an Basarri bertsolari eta kazetari ospetsuak *Eguna* egunkarian:

Ene, au urretxindor
zoli, atsegiña
Euskadin hamaika
laguntza egiña.
Matilde goraltzeko
ai, ni ez naiz diña
saiatuz egin arren
nere alegiña
ezin jaso nezake
merezi dun aiña!


Dakigula, Matildek eta Josebek ez zuten atzera elkarrekin abestu munta horretako ikuskizun batean, baina Guridiren beste lan batek, *Mirentxuk*, elkartuko zituen hainbat urteren buruan Matilde eta Mirentxu ahizpa gazteena oholza berean.

Gerraren eragin desberdina

930eko hamarkadaren aurreneko urteetan euskal kulturarekin zerikusia zuten jarduerak oztopo handirik gabe garatu eta hedatu ziren, nahiz eta politikaren alorrean abertzaletasunak ez izan, Estatuan, horrenbesteko garpén-aukerarik. Hala ere, politikoki nahiko aldrebasa zen abaguneak ez zion indar izpirik kendu Eusko Abesbatzaren mailako ekimenak ahalbidetu zituen euskal kulturaren inguruko mugimenduari.

Nahasten joango zen giroa 1934-35 urteetan, halaber 1936ko matxinadaren eta haren ondorengo gerra-

ren oinarriak eraikitzen arituko balitz bezala. Bien bitartean, abesten jarraitzen zuten Zabalbeaskoa ahizpek. Etxetik urrundu gabe Matildek, bere nazioarteko karrera hedatzen Josebek. Lisboa, Bolonia, Reggio, Bari, Verona, Ventimiglia, Faenza... Garaiko kantari eza-gunekin aritu ohi zen, eta urrats bat falta zitzaion bakarrik handi-handien artera heltzeko: Milango Scala. Baina Joseberen ametsa, milaka euskaldunen itxaropenak bezalatsu, 1936 urtean zapuztu zen.



Mussoliniren diktadura faxistak ezarritako arauak zapuztu zuten, hain zuzen, Joseberen ametsa. Josebe Italiara heldu orduko agintean zegoen Benito Mussolini, 1922az geroztik gobernatzen baitzuen altzairuzko eskuz Italia Duce-ak. Hitlerren 1933ko garaipenaren arrimuan-edo, ordea, estutzen joan zen Mussoliniren ukabila, areagotzen haren joera xenofoboa.

1936 urterako, urrats sendoak zituen eginak Josebek Scala-ko abeslari izatera heltzeko. Mundu osoko kantariak aurkezten ziren Scala-k deitzen zituen azterketa moduko entzunaldietara, eta aurrenekoa gainditzea ere lorpen handia zen. Aurrenekoa ez ezik, bigarrena ere gainditu zuen Josebek. Hirugarrenerako prestatzen ari zela egin zuen porrot aspaldiko asmoak. Hatzen puntan zuen Scala-ko kantari izatea, baina azkeneko maila igotzea baino falta ez zitzaion unean atzerritarrek Italian zeuzkaten lan aukerak izugarri murriztu zituzten arauak onartu zituen Mussoliniren erregimenak. Aldi bertsuan, Espainiako


Gerra piztu zen. Josefinak, hain zuzen, hainbat emanaldi zeuzkan hitzartuta 1936rako Valentiako Viveros Municipales antzokian. Iturri batzuen arabera, *Aida* abestu zuen María Llacerren konpainiarekin, sarritan bezala Cristobal Altube alboan zuela, 1936ko uztailen. Beste iturri batzuek diotenez, bertan behera geratu ziren emanaldi haiek.

Edonola ere, aukera zaila jarri zioten aurrean Josebe Zabalbeaskoari: italiar bilakatu eta herrialde hartan lanean jarraitzeko eskubidea eskuratu —Scala-ra heltzeko azken saioan parte hartzeko eskubidea barne—, ala italiar nazionalitateari uko egin eta, bide nabar, Italian abesteari utzi. Bigarren aukeraren alde egin zuen Josebek, eta hortxe amaitu zen bere ibilbide profesiona-
nala. Gerra piztua zela, nora itzuli ere ez zuen, antza, aurkitu, eta Espainiako enbaxadak deitutako oposaketa batzuetara aurkeztu zen. Aurreneko postua lortu, eta enbaxadan hasi zen lanean. Eta hantxe utziko dugu, oraingoz, Josebe.

Eresoinka, euskal enbaxada ibiltaria

Beste enbaxada bateko kide bilakatuko zen luze gabe Matilde baina, gerra piztu ondorengo hilabeteetan, Bilboko antzokietan aurki dezakegu haren arrastoa. Jose Antonio Agirre Gernikan Eusko Jaurlaritzako lehendakari izendatu eta egun gutxira, 1936ko urriaren 31n eta azaroaren 1ean, egun haietako egunkariet tanke-gidari izateko azterketetarako deialdien edota medikuen militarizazioaren berri ematen zuten bitartean, Serrano maisuaren *La Dolorosa* eta *Los Claviles* zarzuelak interpretatu zituen Matildek Coliseo antzokian, Laguntza Sozialaren aldeko emanaldi bitan. Matilde aurkezten zuten programek erreparto-buru. Orkestra, berriz, Musika Elkarteko eta Solidaridad de Trabajadores Vascos-Eusko Langileen Alkartasuna sindikatuko musikariek osatu zuten. 1936ko azken bi egunak ere Coliseo antzokian igaro zituen Matildek, nahiz eta tiro-hotsak geroz eta hurbilago entzun. Laguntza Sozialerako dirua biltzearren, Sorozabalen *Katuska* interpretatu zuen bi egunez, Bilbo erortzeko hilabete gutxi batzuk baino falta ez zirenean.

Galdu zen Bilbo, galdu zen gerra eta, gerraosteko erbestean, lurrik gabeko herriari eusteari ekin zion Jose Antonio Agirrereren jaurlaritzak. Haren asmo nagusietako bat mundu zabalari Euskal Herriak bizirik eta kementsu jarraitzen zuela ozenki kontatuko zion kultur enbaxada abian jartzea izan zen: Eresoinka sortzea.



Jose Antonio Agirre lehendakariak 1937ko abuztuan idatzitako eskutitz honetan zehaztu zuen Olaizolaren egitekoa

Nazioartean arrakasta bikainak lortutako Saski-Naskiren, Eusko Abesbatzaren eta, oro har, musika, folklorea eta abertzaletasuna uzartu zituzten beste hainbat ekimenen oinordeko izan zen Eresoinka. «Propaganda zibilerrako» tresna eta, aldi berean, lehen mailako talde artistikoa, euskal kantari, dantzari eta txistulari onentsuenak bildu zituen talde zabal eta kalitate handikoa. Herrialde askotako futbol-zelaiak korritu zituen Euzkadi futbol taldeak edota *Elai-Alai* dantza taldeak bezalatsu, Euskal Herriaren izena eta izana zabaltea izan zuen helburu Eresoinka-Euskal Abesbatza Nazionalak.

Idatziz eman zion Jose Antonio Agirre lehendakariak Gabriel Olaizolari Eresoinka sortzeko agindua, 1937ko abuztuaren 19an. Miarrizten

zen abuztuaren 22rako Olaizola, artean erabat zehaztu gabe zegoen proiektura bilduko zen jende bila. Hasierako egoitza Saran finkatu, eta abiada bizia hartu zuen egitasmoak abuztu-irailean. Bere familiako hainbat kide eta Donostiatik ezagutzen zituen kantari erbesterauak izan ziren taldeko aurreneko ki-deak. Aurreneko kantari haietako bat, hain zuzen, Sarara Baionatik heldutako Matilde Zabalbeaskoa Eusko Abesbatzako bakarlaria izan zen.

Eresoinkaren sorrera, noski, ez zen Gabriel Olaizolaren bakarkako lana izan. Manuel de la Sota idazlearen eta Jose Maria Uzelai margolariaren eskua dago, egon, proiektuaren ezaugarri nagusien atzean. Gerora orkestra zuzendari handia izango zen Enrique Jorda Gallastegi donostiarra arduratu zen musika zuzendaritzaz. Arteta, Arrue eta izen handiko beste hainbat artistak sortu zituzten dekora-tuak; Jesus Luisa Esnaola arduratu zen ikuski-zunaren osagai garrantzitsu zen dantza tal-dea antolatzeaz... Aita Donostiaren laguntza ere izan zuten behar zuten gutzietan.



1937ko abenduaren 28an *La République* egunkarian agertutako kritika



Xehetasun guztiak zaindu zituzten Eresoinkako arduradunek, jantziak barne, Matildek erakusten duen hau lekuko



Antonio Gezalak sortu zuen Eresoinkaren ikurra

Gabriel Olaizolaren zuzendaritzapean

Nolanahi ere, Olaizolak bateratu zituen guztien ahaleginak, eta berak akuilatu zuen Eresoinkaren sorrera bizkorra, Agirre lehendakariaren enkarguari jarraiki, denbora balio handiko ondasuna zela jakinik. 1937ko irailaren erdialderako, osatuta zegoen taldea. Euskal Abesbatza Nazionala osatzen zuten 63 abeslariak —Eusko Abesbatzan eta Donostiako Orfeoian aritutakok gehientsuenak, nahiz eta bizkaitarrik ere bazen tartean— Sarako *Eskualduna* eta *La Poste* hoteletan bizi ziren. Irailaren 22tik aurrera, asti gutxi olgetarako, egun horretan hasi baitziren entse-

guak. Igartzen zen, ordea, euren presentzia Sarako kaleetan. Herriko pilotalekuan entseatzten zuten hogeitik gora dantzariena, zer esanik ez... Aurretik ondo trebatutako abeslariak bildu zituen Olaizolak, asko eta asko maila profesionala emateko modukoak. Aurreneko hitzordua, ordea, gainean zuten, Eresoinkak abendurako baitzuen aurreneko konpromiso garrantzitsua, Parisen.

Bi hilabete eskas izan zituzten Gabriel Olaizolak eta lankideek Agirre lehendakariaren agindua jaso, Eresoinka sortu, taldea osatu,



Eresoinkaren argazki ofiziala, garaiko «izarren» argazkilari zen Boris Liptznik Parisen egina. Laukitxoan, Gabriel Olaizola zuzendaria

errepertorioa, dekoratuak, jantziak eta gainerakoak prestatu eta, 1937ko azaroaren 18an, Paris aldera abiatzeko. Hortik aurrera, hilabete baino ez Parisko aretorik garrantzitsuenetako batean, Pleyel aretoan, aurkezpen ofiziala egiteko.

Guztira, ehun abeslari eta dantzari agertu ziren Parisko publiko zorrotzaren aurrean 1937ko abenduaren 18an. Zazpi lehen sopranoen artean, Matilde Zabalbeaskoa eta lehendik ere ezaguna zuen Pepita Enbil. Boris Lipnitzki argazkilari famatuak Eresoinkako kideen argazki ofizial dotore eta landuak egin zituen egunean, hiru soprano eta tenore bat falta ziren, Matilde barne. Matilde,

hortaz, ez da azaltzen Eresoinkaren neurri artistikoaren maila bikain islatzen duten argazki ofizialetan. Eresoinkak iraun zuen bitartean Jesus Eloseggi tolosarrak egin zuen argazki bilduma eder eta bizi-bizian, ordea, maiz agertuko da Matilde; irribarretsu eta jostalari, beti.

Eresoinkaren emanaldietan ere nabarmenduko da Matilde. Gabriel Olaizolak eta Jose Etxabek zuzentzen zuten abesbatzan, beti egon ohi zen bizpahiru soprano bakarlarrien artean. Saski-Naskiren errepertorioan ere toki gorena zuen *Oñazez* abestu ohi zuen abesbatzaren agerraldien arteko tarteetan, Pepita Enbilek *Lore* abesten zuen bitartean. *Oñazez*,



Denak pozik eta, kristalaren kontra, Matilderen aurpegia





Matilde, ondo inguratuta. Belaunera arteko galtzak daramatzana, berriz, Luis Mariano gaztea

Adio ene maitea, Aldapeko... Txalo zaparradak eta bis eskaera ugari Matildek abesti horiek interpretatzen zituen bakoitzean. Eresoinkaren aurreneko emanaldian ere, Matilde Zabalbeaskoa eta Pepita Enbilen lana goraiatu zuten bereziki munduko ahots onenak entzutea ohiko lana zuten Parisko kritikariek. Matildereren *Oñazez* eta Pepitaren *Lore* beti agertzen dira egitarauetan. Taldean, ordea, denak dira garrantzitsu eta ezinbesteko. Baita gerrak 1936an Madrilen egitekoa zuen debuta zein familiak Irunen zuen etxea zapuztu zizkion Luis Mariano gaztea ere.

Baliabideak murrizten

1937 urtea Parisen amaitu ondoren, Belgika eta Holanda izan ziren Eresoinkaren hurrengo jomuga Bi hilabeteko bira hartan josi zen erabat Eresoinka, edozein abesbatza profesionali eska dakioken maila lortuz. Frantziako hiriburuko Théâtre de Paris-ek hartu zuen taldea 1938ko maiatzean eta, ekainean, berriz, Londres aldera abiatu zen. Ordurako, hasia zen denbora azpilana egiten. Hasiak ziren, alegia, Eresoinkaren baliabideak murrizten. Londresko Aldwych antzokian jardun ahal izateko, etxe partikularretan hartu zuten ostatu kantariak, eta aurrekontu urria zuten eguneko gastuei aurre egin ahal izateko.



Aurrekontu arazoaren kontura, halaber, orkestrarik gabe egin zuten Ingalaterrarako bidaia, eta bertan behera gelditu ziren, orkestraren laguntzarik ezean, Matilderen bakarkako saioak.

Gastuak murrizteko eta indarrak biltzeko, 1938ko abuztuaren lehen Paristik hurbil dagoen Belloy jauregi itxurako etxe alokatuan jarri ziren bizitzen Eresoinkako kide guztiak, baliabide urriak partekatzen eta hurrengo emanaldiak prestatzen. Horrenbeste jende gazte etxe berean biltzeak ez zion zorroztasunik kendu Eresoinkaren lanari, baina ezin uka animazioak ere bazuela tokirik Belloyko egunetan. Nesken kasuan, etxeko lanei ere eman behar zitzaizkien eskatzen zuten tartea. Oholtza gainean, denak berdin, baina sukal-

dean, harraskan eta plantxatzeko orduan, emakumeak nagusi...

Musean, berriz, gizonezkoak jaun eta jabe. Hala ere, 1938ko udazkeneko arrats ilun eta luzeak arintzeko Belloyko biztanleek antolatutako mus txapelketan parte hartu zuten hemeretzi bikoteen artean, bazen emakumez osatutako bat. Matilde Zabalbeaskoa eta Asun Lizundia ausartu ziren izena ematera. Eta ez ziren azkenekoak izan...

Mus txapelketari ekin aurretik, baina, garrantzitsua izatekoa zen hitzordua izan zuen Eresoinkak: Euskal Herrian abestu zuen, lehen aldiz, 1938ko irailaren 13an Baionan hasiko den hamabost eguneko biran. Ondo, dena;



«Dentista» eta guzti zeukaten Belloyko jauregian...
Luis Mariano eusten zion burua «gaixoari»



Paristik hamabost kilometrora zegoen jauregi eder hau izan zen, urtebetez, Eresoinkako kideen bizitokia

espero baino epelagoa, ordea. Okerrera aldatzen ote gauzak? Hala zirudien. 1938ko gabon-eguberri jaiak etxetik kanpo eta familiengandik urrun igaro zituen bigarrenak ziren, eta ez dirudi azkenak izango zirenik. Eresoinka Parisko eta beste hainbat hiriburutako antzokietara eramateko gai izan zen Meckel agenteak ere bertan behera utzi zuen Euskal Abesbatza Nazionalarekin zuen konpromisoa eta, horren ondorioz, moteldu egin zen taldearen lan eta emanaldi erritmoa. Bigarren jarduera-urterako, abesbatzari eusten zaio soilik. Dantzariak entseatzen jarraitzen zuten Belloy jauregian, baina hasierako ikuskizun handiak ez ditu ia taularatzen Eresoinkak.

1939ko martxoan, hala ere, Parisko Pleyel aretoan abestu zuen berriro ere Eresoinkak, Parisko Orkestra Sinfonikoarekin batera (1938an, orkestra horrekin egin zuen zuzendari debuta Enrique Jordak). Emanaldi haietan, ez dago Matilderen arrastorik bakarlarientan.

Apirilaren 1ean, «armada gorria gatibu eta armarik gabe», amaitutzat eta irabazitzat jo zuen gerra Francok, Burgosen emandako azkeneko gerra-partean. II. Mundu Gerra iragartzen zuten hodei beltz eta lodiak zabalitzen ziren, berriz, Europako zeruetan. Ordu-rako Hego Amerikan erbestean zeudenen laguntzaz, kontinente hartan bira egiteko asmoa zuen Eresoinkak, baina ez zuen horrenbesterako kemenik bildu, eta sakabanatzen

hasiko dira taldekideak 1939ko udan. Hego Euskal Herrira itzuliko dira horretarako modurik dutenek; Ipar Euskal Herrian geldituko dira beste asko; hainbatek bigarren erbestaldiari ekingo diote, Ameriketarako ontziak hartuta. Belloyko etxea, azkenik, 1939ko irailan geldituko da hutsik. Agirre lehendakariak Gabriel Olaizolari bidaliko dion esker oneko eskutitzak jarriko dio azken hitza bi urteko esperientzia liluragarriari.



Gabriel Olaizola, Belloyko jauregian, 1938ko udazkenean



Londrestik bueltan, Matilde eta Ramon Moraiz Eresoinkako kideak itsasontzian dantzan

Musikari lotuta, beti

Zabalbeaskoa familiari, beste askori bezala, berriro hasi beharra ekarri zion gerraren amaierak. Bilbo aldera jo zuen Matildek. Donostian bizi zen Mirentxu, gurasoekin. Italian jarraitzen zuen Josebek. Gerra osteko ezinkusiek ere jo zuten nolabait familia, eta gerra aurreko maila ekonomikoa galdua, lan ugari-tan saiatu zen, eta halaxe ibili zen bizi artean, Mirentxu. Dendari, autoa hartu eta itsasgintzarako gaiak saltzen... Musika ahaztu gabe, betiere. Mirentxuk musika-prestakuntza sendoa zuen. Piano karrera egindakoa zen, eta pianoa irakasten zuen, etxean zein etxez etxe ematen zituen eskoletan. Kantari aparta zen, gainera. Matilde bezala, sopranoa zen; soprano arina baina, Matilderen indar dramatikorik gabea. 1940 urteko urrian Bilboko Buenos Aires antzokian antolatu zen «kanta-



Mus txapelketan, 15. postuan gelditu ziren Matilde Zabalbeaskoa eta Asun Lizundia

ri ezezagunaren» lehiaketan hartu zuen parte, eta lehen saria lortu zuen sopranoei zegokien taldean. Saria Marichu Zabalbeascoa andereñoak eskuratu zuela zioten lehiaketaren berri eman zuten egunkariek. Sopranoen taldeko bigarren saria beste Marichu donostiar batek irabazi zuen, Marichu Gonzalezek. Itxura denez, Matildek ere hartu zuen parte lehiaketa hartan, baina haren izenik ez da palmaresean ageri. Bai, ordea, Bilboko Musika

Kontserbatorioko 1945-1946 ikasturteko agirietan, ikasle libre legez egin baitzituen kantu azterketak.

Urtebete lehenago, ezusteko erabakia hartu zuen Josebek. Esan bezala, Italian jarraitzen zuen, eta hantxe harrapatu zuen II. Mundu Gerrak. Iturriren batzuen arabera, Josebek *Principe* antzokiko konpainia lirikoarekin abestu zuen Donostian 1942ko ekainean, eta hilaren 13 eta 14an, konpainia horrekintxe, *Marina* antzeztu zuen Bilboko Arriaga antzokian. Zaila da, ordea, emanaldi horiek egin zituen Josebe edo Matilde zen argitzea, maiz nahasten baitira ahizpa biei buruzko aipamenak, nori berea ematea lan nekeza bilakaturik. Dena den, Espainiak Italian zuen enbaxadako langile izaten jarraitu zuen harik eta, 1944, bizimodua erabat aldatuko zion erabaki bat hartu zuen arte: gerra-giroak etsita, azkenean errendituko zuen gaixotasunaren aurreneko zantzuak pairatzen, familia-minez eta musikarena baino berantiarragoa zen bokazio batek bultzatuta, moja sartu zen, 37 urteko emakumea zela, María Reparadora ordenak Segovian zuen etxean. Erromatik irten aurretik behin ebakuntza-gelara eraman zuen gibleko eritasunak aurrera egin zuen, eta ordenak Donostian zeukan etxera ekarri zuten, familiarengandik hurbil. Garai hartan Josebe ezagutu zuten konpainia kideek go-goan dituzte oraindik elizkizun guztietan nabarmentzen zen ahots zoragarria, zein oinaze-oihuak.

Maitea abesbatza

Eta, Donostian, artean 30 urte bete gabeko Mirentxu hurbil izan zuen beti Josebek, aita ez ezik ahizpa ere zaindu baitzuen eritasunak okerrera egin zuenean. Josebek ere asko eman zion Mirentxuri, berak trebatu baitzuen erabat kantuan. Matildek ere ez zituen batere ahaztu Donostian zituen sustrai musikalak. 1940ko hamarkadaren erdialdera, hurrengo hamarkadetako emakume talde onentzuenetakoa izatera helduko zen *Maitea* emakume abesbatza sortu zuen Maria Teresa Hernández Usobiagak. Zabalbeaskoa ahizpen modura, izaera sendoko emakumea zen Maria Teresa, eta euren arteko harremanetan, maiz, txinpartak pizten baziren ere, musikaren dohainak ukitutako emakume haien arteko lankidetzak —iraupen luzekoa Mirentxurekin izan zuena, aldizkakoa Matilderekikoa— fruitu bikainak eman zituen. *Maitea* taldeak 1945 urtean egin zuen estreinako aurkezpena, ibilbide luze eta oparoko aurrena. Maitearekin batera, *Maitea* eta *Easo* abesbatzatak kideek osatzen zuten *Compañía Lírica Donostiarra* ere zuzentzen zuen Maria Teresa Hernándezek, eta bera agertzen 1947ko abenduaren 21ean aipatu taldeak Bilboko Ayala antzokian eskaini zuen *Mirentxuren* zuzendari modura. Guridik berak zuzendu zuen orkestra bere obraren antzezpenean, eta rol nagusiak, Mirentxu eta Presen, Charito Iraundegui eta Matildek interpretatu zituzten, hurrenez hurren. Arrakasta handiz, gainera.




Maitea abesbatza, 1945 urtean



1951n, Nantesen. Txapela daramana da Mirentxu

Matilde, garai hartan, kantu irakasle zen Bilbon, eta Mirentxuk bere mila betekizunekin eta *Maitea* abesbatzarekin jarraitzen zuen. 1949an, okerrera egin zuen Joseberen osasunak; ordenaren etxea utzi eta etxera itzuli zen, Mirentxuren zaintzapean. Urte hartantxe hil zitzaien aita, eta urte hartantxe egin zuten Mirentxuk eta Matildek, elkarrekin, agerpen gogoangarria Madrilén, *Compañía Lírica Donostiarra*ren eskutik. Elkartu zituen obra, Guridik 1910ean estreinatutako *Mirentxu*. Madrid antzokian 1949ko otsailaren 3an egin zen funtzioa aurkezteko Propagandarako Zuzendari-

tza Nagusiak argitaratu zuen liburuxkan irakur daitekeenez, *Mirentxu* euskal idilio lirikoaren antzeppen hartan Maria Teresa Hernandezek eta Juan Cubertak zuzendu *Compañía Lírica Donostiarra*, Imanol Olaizola arduratu zen eszena-zuzendaritzaz, eta Eloy Garayk egin zituen dekoratuak. Mirentxuren rola Marichu Zabalbeascoak egin zuen, eta Presenena, berriz, Matilde Zabalbeascoak. Matilde ez zen *Maitea* taldeko ohiko kide, baina maiz jotzen zuten harengana, bere ezaugarrietara egokitutako rolak zituztenean batik bat; esate baterako, Presenena.



1949an Madrilén eskainitako «Mirentxu»-ren antzeppenean, Matilde eta Mirentxu izan ziren protagonistak

Azken urteak

Horrelako uneak kenduta, nor bere bidetik berriro ere. Gaixotasunak menpe hartu zuen azkenean Josebe, Gurutze Gorriaren Antigua auzoko ospitalean zortzi ebakuntza egin ondoren, eta 1953ko martxoaren 3an zendu zen. Urtetsu ezkondu zen Matilde Gregorio Larrinaga gernikarrarekin, eta bere musika eskolekin eta noizbehinkako agerpenekin jarraitu zuen. 1975eko urtarrilaren 18an hil zen, San Sebastian bezpera aurreko egunean, seme-alabarik utzi gabe, eta Mundakako hilerrian dago hobiratua. Josebe hil zenean, musika irakasle postua eskatu zuen Mirentxuk Donostiako Magisteritza eskolan. Soldatarik gabeko irakasle laguntzaile bezala hasi zen. Urtero eskatzen zuen irabazirik gabeko postua, eta urtero eskuratzen. Musika behar zuen, alegia. Sortzen ziren plaza guztietara aurkeztu zen, baina 1970-71 ikasturtea arte ez zuen lan soldatadunik lortu, eta hantxe jarraitu zuen 1981 urtean erretiratu zen arte. Gogoan izango dute seguruenik urte haietan Donostian magisteritza ikasi zutenek aiurri gogorreko irakasle zorrotza. Ehun kilotik gorako pisua hartuta, herren egiten zuen, eta

ileordeak estaltzen zion berak zioenez geran soildu zitzaion burua. Ikasleekin zituen harremanak ez omen ziren beti gozoak izan, baina Mirentxu Zabalbeaskoak musika behar zuen, kosta ahala kosta. Eskolan, etxean ematen zituen klaseetan eta, *Maitea* deseginda, 80ko hamarkadaren hasieran sortu eta, desagertu arte, bospasei urtez zuzendu zuen *Cuarteto Lírico Donosti* laukoteak (azken ordua arte adiskide izan zuen Maria Jesus Damboreneak, Maria Angeles Olariagak, Carlos Mungiak eta Ricardo Muniainek osatzen zuten taldea) ematen zioten horren beharrezkoa zuen musika.

San Sebastian eguneko danbor hotsetan jaiotako Mirentxu Zabalbeaskoa 2001 urteko abuztuaren 15ean hil zen, Donostiako Aste Nagusiko egun gorenean. Harekin itzali zen Zabalbeaskoa ahizpen ahots liluragarria.



Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko jasotako laguntzazatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Maite Zabalbeaskoari
- Jesus Elosegiren argazki eta dokumentazio artxiboa gordetzen duen eta hori erabiltzeko aukera eman zigun Lazkaoko Beneditarren Liburutegiari eta, bereziki, bilaketa eta hautaketa lanetan lagun izan genuen aita Juan Joxe Agirrerri

Zuzendaritza: Mikel Atxaga

Argitaraldia: I.a, 2005eko abendua

Ale-kopurua: 3.000

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Kultura Saila

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz

Argazkilaria: Edorta Sanz

Fotokonposizioa: R.G.M., S.A.

Inprimaketa: R.G.M., S.A.
Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao

ISBN: 84-457-2380-4 (Lan osoarena)
84-457-2381-2

L.G.: BI - 3289-05

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística